# Bestelako Xedapenak

**ENPLEGU ETA GIZARTE GAIETAKO SAILA**

**6027**

310/2010 DEKRETUA, azaroaren 23koa; honen bidez, Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziaren jarduerak abiaraztea eta Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraren baliabide pertsonalak eta materialak Agentzia horri atxikitzeko baldintzak arautzen dira.

Garapenerako Lankidetzari buruzko otsailaren 22ko 1/2007 Legea onartzeak eragin handia izan zuen ekintza solidarioaren eremuan lankidetza publikoaren bilakaeran, lege horren bitartez jarduera horrek Euskadin izango zituen printzipioak, helburuak eta lehentasunak ezarri baitziren, eta, era berean, jarduera horren agenteak eta tresnak definitu baitziren orokorrean.

1/2007 Legearen azken xedapenen artetik lehenengoaren arabera, Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentzia sortu beharko da, lege espezifiko baten bitartez, eta agentzia horrek planifikatu beharko du garapenerako lankidetzaren alorreko politika, eta politika hori kudeatu eta egikaritu beharko du, beti ere aurreikuspen hori Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentzia sortu eta arautzen duen ekainaren 19ko 5/2008 Legea onartuz beteko da.

5/2008 Legearen arabera, Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentzia nortasun juridiko propioa duen zuzenbide pribatuko erakunde publikoa da, bere helburuak betetzeko jarduteko gaitasuna du, eta garapenerako lankidetzaren arloan eskuduna den Eusko Jaurlaritzako sailari atxikirik dago; horretaz gain, lege horretan honako hauek definitzen dira: helburuak eta eginkizunak, ahalmenak, administrazio-jardunaren printzipioak, bere egoitzaren kokapena eta gobernu-organoen (Lehendakaritza, Kontseilu Errektorea eta Zuzendaritza) zehaztapena, baita organo horien eginkizunak ere.

Ildo berean, 5/2008 Legeak Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziaren izaera eta arauketa –langileen araubide juridikoarena, nahiz araubide ekonomikoarena, ondarearena eta kontratazioarena– ezartzen ditu, eta aurreikusten du jarduerak abiarazteko data antolaketa- eta funtzionamendu-araudia onartzen duen dekretuan ezarriko dela.

Horri dagokionez, 5/2008 Legearen xedapen gehigarrietan ezartzen da Agentziaren jarduerak abiarazi aurretik izendatu beharko direla Kontseilu Errektore-

# Otras Disposiciones

**DEPARTAMENTO DE EMPLEO Y ASUNTOS SOCIALES**

**6027**

DECRETO 310/2010, de 23 de noviembre, por el que se regula el inicio de actividades de la Agencia Vasca de Cooperación para el Desarrollo y las condiciones de adscripción de los medios personales y materiales de la Administración General de la comunidad Autónoma a la misma.

La aprobación de la Ley 1/2007, de 22 de febrero, de Cooperación para el Desarrollo, supuso un hito en la evolución de la colaboración pública en el ámbito de la acción solidaria, estableciéndose por medio de dicha Ley los principios, objetivos y prioridades de esta actividad en Euskadi, definiéndose igualmente, con carácter general, cuáles son sus agentes e instrumentos.

Conforme a la Disposición Final Primera de la Ley 1/2007, se deberá crear mediante una Ley específica, la Agencia Vasca de Cooperación para el Desarrollo, correspondiendo a dicha Agencia la elaboración de la planificación de la política en materia de cooperación al desarrollo, así como la gestión y ejecución de la misma, dándose cumplimiento a dicha previsión mediante la aprobación de la Ley 5/2008, de 19 de junio, por la que se crea y regula la Agencia Vasca de Cooperación para el Desarrollo.

La Ley 5/2008 define a la Agencia Vasca de Cooperación para el Desarrollo como un ente público de derecho privado, con personalidad jurídica propia y capacidad de obrar para el cumplimiento de sus fines, adscrito al departamento del Gobierno Vasco competente en materia de cooperación para el desarrollo, definiéndose en la misma los fines y funciones de la Agencia, sus facultades, los principios de actuación administrativa, la ubicación de su sede y la determinación de sus órganos de gobierno, esto es, la Presidencia, el Consejo Rector y la Dirección, y las funciones de los mismos.

En la misma línea, la Ley 5/2008 determina la naturaleza y regulación tanto del régimen jurídico del personal como del régimen económico, patrimonial y de contratación de la Agencia Vasca de Cooperación para el Desarrollo, previéndose que la fecha de inicio de actividades vendrá establecida en el Decreto por el que se apruebe su Reglamento de organización y funcionamiento.

A este respecto, la Ley 5/2008, en sus disposiciones adicionales dispone la necesidad de que con carácter previo al inicio de actividades de la Agencia,

ko kideak eta jarduerak abiarazi aurretik eratu beharko direla Agentziaren organoak.

Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentzia sortu eta arautzen duen ekainaren 19ko 5/2008 Legearen azken xedapenen artetik lehenengoan ezartzen den agindua betez, Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziaren antolaketa eta funtzionamenduko Erregelamendua onartzen duen martxoaren 23ko 95/2010 Dekretua onartu zen.

Dekretu honek, arestian aipatutako araudia gauzatzeko, ordura arte Garapenerako Lankidetzaren Zuzendaritzan destinoa zuten funtzionarioak Erakunde Publikoan nola txertatzen diren adierazten duten zirkunstantzia zehatzak ezartzen ditu.

Era berean, dekretu honetan honako hauei buruzko alderdiak biltzen dira: Erakunde publikoa aurretik zeuden harreman juridikoetan subrogatzea, espedienteen izapidetzea eta lekualdaketak formalizatzea, ordezkaritza eta defentsa epaiketan, ekonomia-kontrolaren eta kontabilitatearen araubidea, kontratuen araubidea, nortasun korporatiboa, datu pertsonalen tratamendua eta, azkenik, Enplegu eta Gizarte Gaietako Sailaren Zerbitzuen eta Araubide Juridikoaren Zuzendaritzak laguntzeko zereginak bere gain hartzea, esleitu zaizkion eginkizunak behar bezala betetzeko Agentziak laguntza hori behar duenean.

Halaber, eta Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentzia sortu eta arautzen duen ekainaren 19ko 5/2008 Legearen xedapen gehigarrien artetik lehenengoaren bigarren paragrafoan bilduta dauden aurreikuspenak betez, eta Agentziaren jarduerak abiarazi aurretik Erakunde Publikoaren Kontseilu Errektoreko kideak izendatu dira, eta ondorioz, Agentziaren organoak eratu dira.

Aurrekoarekin bat etorriz, Eusko Jaurlaritzak, Erakunde Publikoaren Kontseilu Errektoreak proposatuta, Agentziaren Zuzendaritzaren zuzendaria izendatuko du, eta izendapen horri eraginkortasuna emango zaio Agentziaren jarduera abiarazten denean.

Bestalde, aipatutako xedapen gehigarriaren hirugarren paragrafoan bildutako aurreikuspena ez da aplikatuko, agentziaren jarduerak aurrekontu-legea indarrean jartzen denean abiaraziko direlako.

Horrenbestez, Enplegu eta Gizarte Gaietako sailburuak proposatuta, eta, 2010eko azaroaren 23an egindako bilkuran Jaurlaritzaren Kontseiluak aztertuta eta onartuta, honako hau

deberán ser nombrados los miembros del Consejo Rector y que los órganos de la misma deberán quedar constituidos con anterioridad al inicio de sus actividades.

En cumplimiento del mandato contemplado en la disposición final primera de la Ley 5/2008, de 19 de junio, por la que se crea y regula la Agencia Vasca de Cooperación para el Desarrollo, se aprueba el Decreto 95/2010, de 23 de marzo, por el que se aprueba el Reglamento de organización y funcionamiento de la Agencia Vasca de Cooperación para el Desarrollo.

El presente Decreto determina, en ejecución de la normativa anteriormente aludida, las circunstancias concretas en la que se produce la integración en el Ente Público del personal funcionario hasta entonces destinado en la Dirección de Cooperación al Desarrollo.

Igualmente, se incluyen en este Decreto aspectos relativos la subrogación del Ente público en relaciones jurídicas preexistentes, la tramitación de expedientes y la formalización de los traspasos, representación y defensa en juicio, régimen de control económico y contabilidad, régimen contractual, identidad corporativa, tratamiento de datos personales y, finalmente, la asunción de tareas de apoyo por parte de la Dirección de Servicios y Régimen Jurídico del Departamento de empleo y Asuntos sociales, en tanto en cuanto la Agencia precise de dicho apoyo para el correcto desempeño de las funciones que tiene encomendadas.

Asimismo, y en cumplimiento de las previsiones contenidas en la Disposición Adicional Primera párrafo segundo de la Ley 5/2008, de 19 de junio, por la que se crea y regula la Agencia Vasca de Cooperación para el Desarrollo, con anterioridad al inicio de la actividad de la Agencia se ha procedido a nombrar a las personas miembros del Consejo Rector del Ente Público, constituyéndose, en consecuencia, los órganos de la Agencia.

De conformidad con lo anterior, el Gobierno Vasco procederá a nombrar, a propuesta del Consejo de Rector de Ente Público, a la persona que ha de ostentar la Dirección de la misma, dotándose de efectividad a dicho nombramiento en la misma fecha de inicio de actividad de la Agencia.

Por otro lado, no es de aplicación la previsión recogida en el párrafo tercero de la citada Disposición Adicional, dado que el inicio de actividades de la agencia coincide con la entrada en vigor de la correspondiente Ley de presupuestos.

En su virtud, a propuesta de la Consejera de Empleo y Asuntos Sociales, y previa deliberación y aprobación del Consejo de Gobierno en su sesión celebrada el día 23 de noviembre de 2010,

XEDATU DUT:

***1. artikulua***.– Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziaren jarduera abiaraztea.

Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziak 2011ko urtarrilaren 1ean abiaraziko ditu bere jarduerak.

***2. artikulua***.– Funtzionarioak atxikitzea.

1.– Gaur egun Enplegu eta Gizarte Gaietako Sailaren Garapenerako Lankidetzaren Zuzendaritzan destinoa duten funtzionarioak Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentzian sartuko dira Erakunde Publikoaren jarduera abiarazten den egunetik aurrera. Dekretu honen bitartez, Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziara transferitu behar diren bitarteko pertsonalen zerrenda dekretuaren eranskinean azaltzen da, eta honako alderdi hauek zehazten dira: izen-abizenak, kide den kidegoa eta eskala, enplegu harremana, betetzen duen postua, kodearen deskribapena, zuzkidura-zenbakia, plazaren izena eta zer baldintzatan betetzen duen, egungo administrazio-egoera, lortutako gradua eta osagarri pertsonala, hala badagokio.

2.– Funtzionario horiek Agentzian sartuko dira atxikitzerakoan zeukaten administrazio-egoerari eutsiz, onartuta zituzten eskubide guztiak gordez, antzinatasunarena eta, hala badagokio, gradua finkatze arruntarena barne.

3.– Aurreko puntuan aipatzen diren postuak ez badituzte funtzionario titularrek betetzen, bai Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioko beste posturen bat betetzen ari direlako edo postua gordetzeko eskubidea ematen duen beste egoeraren batean daudelako, dauden egoeran jarrai dezakete, baina garapenerako lankidetzaren agentzian orain esleitu zaien postura itzuli beharko dute egoera hori amaitu bezain laster.

4.– Bitarteko funtzionarioek egungo loturari eutsiko diote titularra berriz itzultzen den arte, hutsik dagoen postua arauz bete arte edo postua amortizatu arte, eta Administrazio Orokorraren postuetara itzuliko dira aldi baterako zerbitzuak betetzeko, lotura amaitzen denean, eta denbora hori zenbatu egingo da poltsen baremazioa egiteko.

***3. artikulua***.– Lanpostuen zerrenda eta plantillen onarpena.

1.– Premiak aztertzeko eta langileen plantilla onartzeko beharrezko prozesuak egin ostean,erakunde publikoaren zuzendaritzak proposatu ondoren, agentziaren kontseilu errektoreak bere lanpostuen zerrenda propioa onartuko du, eta zerrenda horretan funtzionarioek bete behar dituzten lanpostuak eta langileek bete behar dituztenak bereiziko dira, lanpostu

DISPONGO:

***Artículo 1***.– Inicio de la actividad de la Agencia Vasca de Cooperación para el Desarrollo.

La Agencia Vasca de Cooperación para el Desarrollo iniciará sus actividades el día 1 de enero de 2011.

***Artículo 2***.– Adscripción de personal funcionario.

1.– El personal funcionario actualmente destinado en la Dirección de Cooperación para el Desarrollo del Departamento de Empleo y Asuntos Sociales pasará a integrarse en la Agencia Vasca de Cooperación para el Desarrollo desde la fecha de inicio de actividad del Ente Público. La relación de medios personales que son objeto, mediante el presente Decreto, de transferencia a la Agencia Vasca de Cooperación para el Desarrollo, se detalla en anexo al mismo, especificándose los siguientes aspectos: nombre y apellidos, Cuerpo y escala al que pertenece, Relación de Empleo, Puesto que ocupa, con descripción del Código, n.º de dotación, denominación y condición en la que ocupa la plaza, situación administrativa actual, grado consolidado y complemento personal, en su caso.

2.– Dicho personal funcionario se integrará en la Agencia manteniendo la situación administrativa en la que se encontraba en el momento de su adscripción, conservando todos los derechos que tuviera reconocidos, incluido el de antigüedad y el de la normal consolidación de grado, en su caso.

3.– Cuando el personal funcionario titular de los puestos a los que se refiere el punto anterior no los esté ocupando, bien por encontrarse desempeñando algún otro puesto de la administración de la comunidad autónoma o bien por encontrarse en alguna otra situación que genere derecho a reserva de puesto, podrá seguir en la situación en la que se encuentra, debiendo reincorporarse al puesto ahora ubicado en la agencia de cooperación para el desarrollo en cuanto cese en dicha situación.

4.– El personal funcionario interino mantendrá su actual vinculación hasta la reincorporación del titular, la cobertura reglamentaria de la vacante o la amortización del puesto, reincorporándose a las bolsas de la Administración General para la prestación de servicios con carácter temporal, una vez finalice ésta, computándose dicho tiempo a efectos de la baremación de bolsas.

***Artículo 3***.– Relación de Puestos de Trabajo y aprobación de plantillas.

1.– Tras la realización de los oportunos procesos de análisis de necesidades y de la aprobación de la plantilla de personal, previa propuesta de la dirección del ente público, el consejor rector de la agencia aprobará su propia relación de puestos de trabajo, diferenciando en la misma los puestos de trabajo que han de ser provistos por personal funcionario de

bakoitzari esleitutako eginkizunen izaeraren arabera. Era berean, lanpostuen zerrenda horrek Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrerako eta haren erakunde autonomoetarako orokorrean onartutako irizpideak errespetatu beharko ditu; horretarako, Funtzio Publikoaren Zuzendaritzaren aldez aurreko aginduzko txostena beharko da. Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziaren lanpostuen zerrenda Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu ondoren jarriko da indarrean.

Nolanahi ere, Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziaren lanpostuen zerrendan bildutako lanpostuak Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraren eta haren Erakunde Autonomoen Kidegoak eta Eskalak antolatzeari buruzko otsailaren 25eko 1/2004 Legean aurreikusitakora egokituko dira, baita langileentzako erreserbatutako lanpostuetan aplikatu behar den lan-araudira ere.

2.– Agentziako lanpostuen zerrendan etorkizunean egin litekeen beste edozein aldaketa, bai postu berriak sortzeko, edo lehendik zeuden postuen zuzkidura berriak sortzeko, bai edozein baldintza aldatzeko, agentziaren kontseilu errektoreak onartuko du; horretarako, Euskal Autonomia Erkidegoaren Administrazio Orokorrerako eta haren erakunde autonomoetarako orokorrean onartutako irizpideak errespetatuko dira, baita arestian aipatutako prozedura osoa ere.

3.– Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentzia sortu eta arautzen duen ekainaren 19ko 5/2008 Legearen 14. artikuluan aurreikusitakoaren arabera, Agentziaren lanpostuak horretarako kontratatutako langileek eta Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko funtzionarioek beteko dituzte, Agentziaren lanpostuen zerrendan azaltzen den deskribapenak ezartzen duenarekin bat etorriz, beti ere lanpostu horietako bakoitzari esleitzen zaizkion eginkizunen arabera.

Ahalmen publikoak berekin eramateagatik, funtzionarioentzat gordeta dauden postuak betetzeko prozesuen deialdia, kudeaketa eta ebazpena Funtzio Publikoaren alorrean eskumena duen Sailak gauzatuko ditu, beti ere publizitatearen, berdintasunaren, merezimenduaren eta gaitasunaren printzipioak kontuan hartuta, eta Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraren Funtzio Publikoaren araudi erregulatzailea aplikatuz uneoro.

Langileentzako gordetako postuak betetzeari dagokionez, lanpostu horiek lortzeko araubidea, sarrera-proben baldintzak eta ezaugarriak, baita prozeduren deialdiak, kudeaketa eta ebazpena ere Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziak gauzatuko ditu, beti ere publizitatearen, berdintasunaren, merezimenduaren eta gaitasunaren printzipioekin bat etorriz.

los que se encuentran reservados a personal laboral, según la naturaleza de las funciones asignadas a cada puesto. Asimismo, dicha Relación de Puestos de Trabajo deberá respetar los criterios aprobados con carácter general para la Administración General de la Comunidad Autónoma y sus Organismos Autónomos, requiriendo informe preceptivo previo de la Dirección de Función Pública. La relación de puestos de trabajo de la agencia vasca de cooperación para el desarrollo entrará en vigor tras su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

En todo caso, los puestos de trabajo recogidos en la relación de puestos de trabajo de la Agencia Vasca de Cooperación para el Desarrollo se ajustarán a lo previsto en la Ley 1/2004, de 25 de febrero, de ordenación de los Cuerpos y Escalas de la Administración General de la Comunidad Autónoma de Euskadi y sus Organismos Autónomos, así como de la normativa laboral que sea en su caso de aplicación para los puestos reservados a personal laboral.

2.– Cualquier otra modificación que pueda producirse en el futuro en la relación de puestos de trabajo de la agencia, ya sea para crear nuevos puestos, nuevas dotaciones de puestos preexistentes o bien para modificar cualquier requisito, será aprobada por el consejo rector de la agencia, respetando los criterios aprobados con carácter general para la Administración General de la Comunidad Autónoma y sus Organismos Autónomos y la totalidad del procedimiento reseñado con anterioridad.

3.– Conforme a lo previsto en el artículo 14 de la Ley 5/2008, de 19 de junio, por la que se crea y regula la Agencia Vasca de Cooperación para el Desarrollo, los puestos de trabajo de la Agencia serán desempeñados por personal contratado al efecto y por personal funcionario de la Administración General de la Comunidad Autónoma del País Vasco, en concordancia con lo que se determine en la descripción contenida en la Relación de Puestos de Trabajo de la Agencia, según las funciones asignadas a cada uno de los mismos.

La convocatoria, gestión y resolución de los procesos de provisión de los puestos que, por comportar el ejercicio de potestades públicas, se encuentren reservados a personal funcionario, corresponderá al Departamento competente en materia de Función Pública, atendiendo a los principios de publicidad, igualdad, mérito y capacidad, aplicándose en todo momento la normativa reguladora de Función Pública de la Administración General de la Comunidad Autónoma.

En relación con la provisión de los puestos reservados a personal laboral, el régimen de acceso a dichos puestos, los requisitos y las características de las pruebas de selección, así como la convocatoria, gestión y resolución de los procedimientos se llevará a cabo por la propia Agencia Vasca de Cooperación para el Desarrollo, en todo caso conforme a los principios de publicidad, igualdad, mérito y capacidad.

4.– Euskararen erabilera normalizatzeko azaroaren 24ko 10/1982 Legean eta Euskal Autonomia Erkidegoko Herri Administrazioetan euskararen erabilera normalizatzeko prozesua arautzen duen apirilaren 15eko 86/1997 Dekretuan azaltzen diren aurreikuspenak betetzeko, Agentziaren lan harremanen zerrendak zerbitzuei aplikatu beharreko hizkuntza-helburuak eta helburu horiek benetan bete nahi dituzten neurriak kontuan hartuta egingo dira, Hizkuntza Normalizatzeko Planak ezartzen duenaren arabera. Hizkuntza Normalizatzeko Plan hori egiteko, Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziak Enplegu eta Gizarte Gaietako Sailaren Zerbitzuen eta Araubide Juridikoaren Zuzendaritzaren laguntza eta bitartekoak (pertsonalak eta materialak) izango ditu.

5.– Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziaren lanpostuen zerrenda berria indarrean jartzen denean, plaza horiek behin betiko beteko dira postu horiek funtzionarioentzat edo langileentzat diren kontuan hartuta aplikatu behar zaizkien prozeduren arabera, beti ere Funtzio Publikoaren Zuzendaritzaren derrigorrezko txostenak egin ondoren.

***4. artikulua.***– Langileen araubide juridikoa.

1.– Garapenerako Lankidetzaren Agentzia sortu eta arautzen duen ekainaren 19ko 5/2008 Legearen bigarren xedapen gehigarrian aurreikusitakoaren arabera, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko funtzionarioek, Erakunde Publiko berrian sartzen direnek, egungo administrazio-egoerari eutsiko diete eta eskubide guztiak gordeko dituzte, antzinatasunaren eta langileen gradua finkatzearen eskubideak barne, beti ere Euskal Funtzio Publikoaren uztailaren 6ko 6/1989 Legearen 45. artikuluan aurreikusitakoaren arabera. Irizpide bera aplikatuko da ondoren Agentziara sartzen diren funtzionarioei dagokienez ere, funtzionario horiek zerbitzu aktiboko egoerari eutsiko baitiote beren jatorrizko kidegoan, eta horretarako Euskal Administrazio Publikoetako funtzionarioen lanpostuak betetzeko Araudia onartzen duen urriaren 13ko 190/2004 Dekretua edo hura ordeztuko duen araudia eta prozedura arautzen duen 2006ko maiatzaren 30eko Agindua –Ogasun eta Herri Administrazioko sailburuarena– aplikatuko dira.

Era berean, Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziaren funtzionarioei Herri Administrazioetako funtzionarioen egoera administratiboen arautegia onartzen duen azaroaren 11ko 339/2001 Dekretua edo hura ordezten duen araudia aplikatuko zaie.

2.– Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentzia sortu eta arautzen duen ekainaren 19ko 5/2008 Legean aurreikusitakoarekin bat etorriz, Agentziako lan-

4.– En cumplimiento de las previsiones contenidas en la Ley 10/1982, de 24 de noviembre, Básica de Normalización del Usos del Euskera y del Decreto 86/1997, de 15 de abril, por el que se regula el proceso de normalización de uso del euskera en las Administraciones Públicas de la Comunidad autónoma de Euskadi, las Relaciones de Puestos de Trabajo de la Agencia se elaborarán teniendo en cuenta los objetivos lingüísticos que sean de aplicación a los distintos servicios y las medidas tendentes a su efectivo cumplimiento, conforme a lo que determine su Plan de Normalización Lingüística. Para la elaboración de dicho Plan de Normalización Lingüística, la Agencia Vasca de Cooperación para el Desarrollo contará con la colaboración y los medios personales y materiales de la Dirección de Servicios y Régimen Jurídico del Departamento de Empleo y Asuntos Sociales.

5.– Una vez entre en vigor la nueva Relación de Puestos de Trabajo de la Agencia Vasca de Cooperación para el Desarrollo, se procederá a la cobertura definitiva de dichas plazas, en base a los procedimientos que sean de aplicación en función del carácter funcionarial o laboral de éstos, previo los informes preceptivos de la Dirección de Función Pública.

***Artículo 4.***– Régimen jurídico de personal.

1.– Conforme a lo previsto en al disposición Adicional Segunda de la Ley 5/2008, de 19 de junio, por la que se crea y regula la Agencia de Cooperación para el Desarrollo, el personal funcionario de la Administración General de la Comunidad Autónoma de Euskadi que se integre en el nuevo Ente Público, mantendrá su actual situación administrativa, conservando todos sus derechos, incluidos el de antigüedad y el de normal consolidación del grado personal según lo previsto en el artículo 45 de la Ley 6/1989, de 6 de julio, de la Función Pública Vasca. El mismo criterio se aplicará en relación con el personal funcionario que posteriormente se incorpore a la Agencia, quien mantendrá una situación de servicio activo en su cuerpo de origen siendo de aplicación a dicho efecto el Decreto 190/2004, de 13 de octubre, por el que se aprueba el Reglamento de provisión de puestos de trabajo del personal funcionario de las Administraciones Públicas Vascas o normativa que le sustituya y la Orden de 30 de mayo de 2006, de la Consejera de Hacienda y Administración Pública, que regula el procedimiento.

Igualmente será de aplicación al personal funcionario de la Agencia Vasca de Cooperación para el Desarrollo el Decreto 339/2001, de 11 de noviembre, por el que se aprueba el Reglamento de Situaciones Administrativas del personal funcionario de las Administraciones Públicas o normativa que le sustituya.

2.– De conformidad con lo previsto en Ley 5/2008, de 19 de junio, por la que se crea y regula la Agencia Vasca de Cooperación para el Desarrollo,

gileen ordainsari-araubidea Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren zerbitzupeko langileentzat orokorrean ezarrita dagoena izango da.

3.– Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko funtzionarioei Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioko funtzionarioen lan-baldintzak arautzen dituen akordioa aplikatuko zaie.

4.– Aipatutako 5/2008 Legearen 14.2 artikuluan azaltzen den aurreikuspenaren arabera, Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziak kontratatutako langileak lan-eskubideei buruzko arauen bitartez arautuko dira, eta langile horiei, bertan sartu gabe, Euskal Autonomia Erkidegoaren Zerbitzupeko Lan Kolektiboen Hitzarmena aplikatuko zaie, negoziazio kolektiboaren ostean beren berariazko hitzarmena onartu arte.

***5. artikulua***.– Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentzia aldez aurretik zeuden harreman juridikoetan subrogatzea.

1.– Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentzia Enplegu eta Gizarte Gaietako Sailak Agentziari dagozkion eginkizun eta eskumenei buruzko alorretan gaur egun arte eusten dituen kontratu eta hitzarmenetan jatorria duten harreman juridiko subjektibo, eskubide eta betebehar guztietan subrogatuko da.

2.– Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziari esleitutako eginkizunak garatzeko Enplegu eta Gizarte Gaietako Sailak egindako kontratuen subrogazioa dagozkion emate- eta jasotze-akten bitartez formalizatuko da eta akta horiek, hurrenez hurren, Enplegu eta Gizarte Gaietako Sailaren Zerbitzu eta Araubide Juridikoaren Zuzendaritzak sinatuko ditu Erakunde Publikoaren Zuzendaritzarekin batera. Akta horretan ordaintzeko edo kobratzeko dauden zenbatekoak bilduko dira esanbidez.

3.– Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziari esleitutako eginkizunak garatzeko, Enplegu eta Gizarte Gaietako Sailak hasitako eta abian jartzen direnean izapidetze-fasean dauden kontratazio-espedienteei dagokienez, espediente horiek jardunekin jarraituko dute esleitzen diren arte. Esleipena egin ostean, Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentzia Sailaren posizioan subrogatuko da, kontratua formalizatzeko eta egikaritzeko.

4.– Aurreko puntuetan azaltzen diren kasuetan, Ekonomia eta Ogasun Sailak beharrezkoak diren baliabide ekonomikoen transferentzia egokiak egingo ditu, hala badagokio.

el régimen retributivo del personal de la Agencia será el establecido con carácter general para el personal al servicio de la Administración de la Comunidad Autónoma de Euskadi.

3.– Al personal funcionario de la Administración General de la Comunidad Autónoma del País Vasco le será de aplicación el Acuerdo Regulador de Condiciones de Trabajo del personal funcionario de la Administración de la Comunidad Autónoma de Euskadi.

4.– En virtud de la previsión contenida en el artículo 14.2 de la citada Ley 5/2008, el personal contratado por la Agencia Vasca de Cooperación para el Desarrollo se regirá por las normas de derecho laboral, siéndole de aplicación a dicho personal, sin integrarse en el mismo, el Convenio de Colectivos Laborales al Servicio de la Comunidad Autónoma de Euskadi, hasta la aprobación de su convenio específico previa negociación colectiva.

***Artículo 5***.– Subrogación de la Agencia Vasca de Cooperación para el Desarrollo en relaciones jurídicas preexistentes.

1.– La Agencia Vasca de Cooperación para el Desarrollo se subroga en todas las relaciones jurídicas subjetivas, derechos y obligaciones que tengan su origen en los contratos y convenios que el Departamento de Empleo y Asuntos Sociales mantiene hasta la actualidad en materias relativas a las funciones y competencias que corresponden a la Agencia.

2.– La subrogación en los contratos celebrados por el Departamento de Empleo y Asuntos Sociales para el desarrollo de las funciones atribuidas a la Agencia Vasca de Cooperación para el Desarrollo se formalizará mediante las correspondientes actas de entrega y recepción, a suscribir respectivamente por la Dirección de Servicios y Régimen Jurídico del Departamento de Empleo y Asuntos Sociales con la Dirección del Ente Público. En dicha acta se recogerán expresamente las cantidades pendientes de pago o cobro.

3.– Respecto de los expedientes de contratación iniciados por el Departamento de Empleo y Asuntos Sociales para el ejercicio de las funciones atribuidas a la Agencia Vasca de Cooperación para el Desarrollo y que a la fecha de entrada en funcionamiento se encuentren en tramitación, éstos proseguirán las actuaciones hasta la adjudicación. Una vez realizada la adjudicación se producirá la subrogación de la Agencia Vasca de Cooperación para el Desarrollo en la posición del Departamento a efectos de la formalización del contrato y su ejecución.

4.– En los supuestos recogidos en los puntos anteriores, el Departamento de Economía y Hacienda realizará, en su caso, las oportunas transferencias de los recursos económicos necesarios.

***6. artikulua.***– Espedienteak izapidetzea eta lekualdaketak formalizatzea.

1.– Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziari dagokio esleitu zaizkion eta alor horretan lehen jarduten zuten erakundeek hasitako eta erakundearen jarduerak egiaz hasiko diren egunean bukatu gabe dauden eginkizunei buruzko espedienteak ebaztea eta egikaritzea.

2.– Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziaren eskumenei buruzko espedienteen ematea dagokion emate- eta jasotze-aktaren bitartez formalizatuko da, eta akta horiek Enplegu eta Gizarte Gaietako Sailaren Zerbitzuen eta Araubide Juridikoaren Zuzendaritzak sinatuko dituzte, hurrenez hurren.

3.– Aurreko puntuetan azaltzen diren kasuetan, Ekonomia eta Ogasun Sailak beharrezkoak diren baliabide ekonomikoen transferentzia egokiak egingo ditu, hala badagokio, aipatutako espedienteak kudeatzeko.

***7. artikulua.***– Ordezkaritza eta defentsa epaiketan.

Epaiketaren kasuan, Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziaren jardunen ordezkaritza eta defentsa, Euskal Autonomia Erkidegoaren epaiketarako ordezkotza eta aldezpenari buruzko ekainaren 26ko 7/1986 Legearen arabera egingo da, eta ordezkaritza eta defentsa hori Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraren Zerbitzu Juridiko Zentralei atxikitako letratuei dagokie.

***8. artikulua.***– Ekonomia-kontrolaren eta kontabilitatearen araubidea.

1.– Agentziaren ekonomia-kontrola ekonomia-finantzen kontrolaren eta kudeaketa-kontrolaren modalitatean gauzatuko da, Euskal Autonomia Erkidegoko ekonomia-kontrolari buruzko ekainaren 30eko 14/1994 Legearen eta lege hori garatzeko araudiaren eta Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren barneko ekonomiaren kontrola eta kontabilitatea garatzen dituen urriaren 31ko 464/1995 Dekretuaren arabera.

2.– Agentziak berak landuko du bere informazio ekonomiko-finantzarioa, beti ere Kontabilitateko Plan Orokorreko irizpideei jarraiki. Informazio ekonomiko-finantzario hori bat etorriko da Euskal Autonomia Erkidegoko araudian Zuzenbide Pribatuko Erakunde Publikoentzat xedatutakorekin, baita Kontrol Ekonomikoko Bulegoak xede horrekin emandako jarraibideekin ere.

***9. artikulua.***– Kontratu-araubidea.

Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziaren kontratu-jarduera Agentziaren Mahaiaren bitartez gauzatuko da, Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziaren antolaketa eta funtzionamenduko Erregе-

***Artículo 6.***– Tramitación de expedientes y formalización de los traspasos.

1.– Corresponde a la Agencia Vasca de Cooperación para el Desarrollo la resolución y ejecución de los expedientes relativos a las funciones que le han sido atribuidas, que hayan sido iniciados por las instituciones que actuaban anteriormente en la materia y que estén pendientes de finalización en la fecha de inicio efectivo de las actividades del ente.

2.– La entrega de expedientes relativos a las competencias de la Agencia Vasca de Cooperación para el Desarrollo se formalizará mediante la correspondiente acta de entrega y recepción, a suscribir respectivamente por la Dirección de Servicios y Régimen Jurídico del Departamento de Empleo y Asuntos Sociales y la Dirección del Ente Público.

3.– En los supuestos recogidos en los puntos anteriores, el Departamento de Economía y Hacienda realizará, en su caso, las oportunas transferencias de los recursos económicos necesarios para la gestión de los referidos expedientes.

***Artículo 7.***– Representación y defensa en juicio.

La representación y defensa en juicio de las actuaciones de la Agencia Vasca de Cooperación para el Desarrollo se realizará en los términos de la Ley 7/1986, de 26 de junio, de Representación y Defensa en juicio de la Comunidad Autónoma del País Vasco, correspondiendo la misma al personal letrado adscrito a los Servicios Jurídicos Centrales de la Administración General del País Vasco.

***Artículo 8.***– Régimen de control económico y contabilidad.

1.– El control económico de la Agencia se ejerce en la modalidad de control económico-financiero y de gestión, de acuerdo con lo establecido en la Ley 14/1994, de 30 de junio, de control económico y su normativa de desarrollo, y el Decreto 464/1995, de 31 de octubre, por el que se desarrolla el ejercicio del control económico interno y la contabilidad en el ámbito de la Administración Pública de la Comunidad Autónoma de Euskadi.

2.– La Agencia llevará su propia información económica-financiera, elaborada de acuerdo a los criterios del Plan General de Contabilidad. Esta información económico-financiera se ajustará a lo que la normativa de la Comunidad Autónoma de Euskadi establezca al respecto para los Entes Públicos de Derecho Privado, así como a la directrices con ese mismo fin dicte la Oficina de Control Económico.

***Artículo 9.***– Régimen contractual.

La actividad contractual de la Agencia Vasca de Cooperación para el Desarrollo se instrumentará a través de la Mesa de la Agencia de conformidad con lo establecido en el artículo 24 del Decreto 95/2010,

lamendua onartzen duen martxoaren 23ko 95/2010 Dekretuaren 24. artikuluaren arabera.

***10. artikulua.***– Elkarte-identitatea.

Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziak bere marka-irudia ezarriko du, Eusko Jaurlaritzaren markarekin batera erabiliko du eta Eusko Jaurlaritzaren Korporazio Identifikazioari buruzko Eskuliburuaren arauak kontuan hartuta.

***11. artikulua.***– Datu pertsonalen fitxategiak.

1.– Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentzia arduratuko da zerbitzuen erabiltzaileen datu pertsonalak biltzen dituzten fitxategien kudeaketaz eta zeregin hori bere gain hartuko du lortzen den informazioaren tratamendu konfidentziala bermatuz, beti ere datu pertsonalak babesteari buruzko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoan araututako baldintzen arabera.

2.– Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziak behar diren kudeaketak egingo ditu fitxategien titulartasun-baldintzak eguneratzeko, eta, bereziki, bitartekotzaren alorrari dagozkionak bateratzeko.

XEDAPEN IRAGANKORRAK

***Lehenengoa***.– Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziako lanpostuen zerrenda egunean jarri eta lanpostu horiek betetzen diren arte, Enplegu eta Gizarte Gaietako Sailaren Zerbitzuen eta Araubide Juridikoaren Zuzendaritzak behar den laguntza eta babesa emango dio erakunde publiko horri Agentziak esleituta dituen eginkizunak behar bezala betetzeko.

***Bigarrena***.– Dekretu honetan aipatzen diren langileek Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziari atxikitzerakoan Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraren eta haren erakunde autonomoen zerbitzupeko funtzionarioen lan-baldintzak arautzen dituen Akordioan aurreikusitako aurrerapenak konpentsatu gabe badituzte eta/edo nomina-aurrerapenak itzuli gabe badituzte, horietaz baliatzen jarraituko dute aurrerapen horiek eman zitzaizkien baldintza berberetan.

AZKEN XEDAPENA.– Ondorioak.

Dekretu honek 2011ko urtarrilaren 1etik aurrera izango ditu ondorioak.

Vitoria-Gasteizen, 2010eko azaroaren 23an.

Lehendakaria,
FRANCISCO JAVIER LÓPEZ ÁLVAREZ.

Enplegu eta Gizarte Gaietako sailburua,
MARÍA GEMMA ARÁNZAZU ZABALETA ARETA.

de 23 de marzo, por el que se aprueba el Reglamento de organización y funcionamiento de la Agencia Vasca de Cooperación para el Desarrollo.

***Artículo 10.***– Identidad corporativa.

La Agencia Vasca de Cooperación para el Desarrollo establecerá su imagen de marca, que utilizará en convivencia con la marca del Gobierno Vasco y bajo las pautas del Manual de Identidad Corporativa de éste.

***Artículo 11.***– Ficheros de datos personales.

1.– La Agencia vasca de cooperación para el desarrollo se hace cargo de la gestión de los ficheros que recogen los datos personales de los usuarios de los servicios que asume garantizando el tratamiento confidencial de la información de la que se disponga en los términos regulados en la Ley Orgánica 15/1999 de 13 de diciembre de protección de datos de carácter personal.

2.– La Agencia Vasca de Cooperación para el Desarrollo realizará las gestiones necesarias para actualizar las condiciones de titularidad de los ficheros y, en particular, unificar los correspondientes a la materia de intermediación.

DISPOSICIONES TRANSITORIAS

***Primera***.– Hasta tanto se proceda a la entrada en vigor de la relación de puestos de trabajo de la Agencia Vasca de Cooperación para el Desarrollo y a la cobertura de los mismos, la Dirección de Servicios y Régimen Jurídico del Departamento de Empleo y Asuntos Sociales prestará a dicho Ente Público la asistencia y el apoyo que precise para el correcto desempeño de las funciones que la Agencia tiene encomendadas.

***Segunda***.– El personal al que se refiere este Decreto, y que en el momento de la adscripción a la Agencia Vasca de Cooperación para el Desarrollo, tuviera pendiente de compensación anticipos y/o reintegro de adelantos de nómina de los previstos en el Acuerdo regulador de condiciones de trabajo del personal funcionario al servicio de la Administración General de la Comunidad Autónoma de Euskadi y sus Organismos Autónomos, continuará disfrutando de los mismos en las condiciones en que les fueran concedidos.

DISPOSICIÓN FINAL.– Efectos.

El presente Decreto surtirá efectos el día 1 de enero de 2011.

Dado en Vitoria-Gasteiz, a 23 de noviembre de 2010.

El Lehendakari,
FRANCISCO JAVIER LÓPEZ ÁLVAREZ.

La Consejera de Empleo y Asuntos Sociales,
MARÍA GEMMA ARÁNZAZU ZABALETA ARETA.

AZAROAREN 23KO 310/2010 DEKRETUAREN ERANSKINA
*ANEXO DEL DECRETO 310/2010 DE 23 DE NOVIEMBRE*

Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziari atxikitako funtzionarioak
*Funcionarios adscritos a la Agencia Vasca de Cooperación para el Desarrollo*

| Destinoa *Destino* | Postua *Puesto* | Zuzkidura *Dotación* | Postuaren deskribapena *Descripción puesto* | Maila *Nivel* (I) | D Oren maila *Nivel decomplemento de destino* | Maila *Nivel* (I) | Kidegoa *Cuerpo* | Izen-abizenak *Nombre y apellidos* | Dedikazioaren ehunekoa *Porcentaje dedicación* | Gradua *Grado* | EHR *E* | Administrazio-egoera banakatua *Situación adm. desglosada* | Kargu-uztearen kausa banakatua *Causa cese con desglose* | Langileen urteko osagarria *Compl. Per. anual* |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| Vitoria-Gasteiz | 510400 | 15 | Administrazio orokorreko teknikaria *Técnico/a de la Administración General* | III-C | 25 | 23 | A01EU | Etxabarri Saiz, Amaia | 100 | | I | Lanp. huts. bit. funtz. kob. *Func. int. cob. vacante* | | |
| Vitoria-Gasteiz | 510400 | 16 | Administrazio orokorreko teknikaria *Técnico/a de la Administración General* | III-C | 25 | 23 | A01EU | Dominguez Atxalandabaso, Javier | 100 | | I | Lanp. huts. bit. funtz. kob. *Func. int. cob. vacante* | | |
| Vitoria-Gasteiz | 520040 | 152 | Administrari orokorra *Administrativo/a general* | VI-B | 18 | 17 | A07EU | Canillas Sacristan, Raquel | 100 | | I | Tit. ord. bit. funtz. *Func. int. sustit. titular* | | |
| Vitoria-Gasteiz | 520040 | 152 | Administrari orokorra *Administrativo/a general* | VI-B | 18 | 17 | A07EU | Guilarte Valdivielso, Julia Amaia | 100 | 18 | A | Titularra *Titular* | Zerbitzu bereziak *Servicios especiales* | |
| Vitoria-Gasteiz | 520040 | 504 | Administrari orokorra *Administrativo/a general* | VI-B | 18 | 17 | A07EU | Durana Ibañez, Iñigo | 100 | | I | Lanp. huts. bit. funtz. kob. *Func. int. cob. vacante* | | |